

ERAKUNDEAREN DATUAK

1. Erakundearen izena:	Athletic Club eta Athletic Fundazioa
2. Sektorea:	Kirola
3. Langile kopurua:	Klubean 199 langile daude, 50 emakume eta 149 gizon. Fundazioan 63 langile daude, 13 emakume eta 50 gizon.
4. Webgunea:	Fundazioa: https://athleticclubfundazioa.eus/eu/ Kluba: https://www.athletic-club.eus/eu
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak ...):	<p>Athletic Club 1898an sortutako futbol kluba da. Honek bere barruan barnebiltzen ditu 17 futbol talde, emakumezko zein gizonezkoenak, futbol eskola, bazkideen eta zaleen arreta zerbitzuak, kirol guneetako arreta, klubekin edota bestelako eragileekin harremanak edota San Mameseko negozioen kudeaketa, besteak beste.</p> <p>Horrez gain, 2002tik Athletic fundazioa dago Klubari lotuta, honek Bizkaiko gizartearekiko lotura indartzeko eta gizarte hori hobetzen laguntzeko. Fundazioaren helburu nagusia kirol, kultur eta gizarte arloko jardueren zabalkundea eta sustapena da. Fundazioaren jarduera programa bost esparru handitan banatzen da:</p> <ul style="list-style-type: none">- gizarte esparrua- kultura esparrua- kirola eta esparru akademikoa- prestakuntza eta garapenaren esparrua- ingurumen esparrua.

Harremanetarako datuak

Solaskidearen izen-abizenak:	Igor Arenaza Txintxurreta
Helbide elektronikoa:	i.arenaza@fundacionathleticclub.eus
Telefonoa:	649 822 070

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Euskara plana egiteko Athleticen (klubean eta fundazioan) osatu den barne egitura.
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	Zertan datza Athleticen euskara planaren prozesua bideratzeko martxan jarri den barne egitura hiru zutabetan datza: talde operatiboa, Euskara Batzordea eta euskara arduraduna eta koordinatzaileak. Hirurak harremanetan eta interkonektatuta daude, sarean, baina aldi berean, horietako bakoitzak bere egiteko zein funtzioak ditu. Talde operatiboari dagokionez, hau da Euskara Planaren motorra. Talde bizia da eta beharren arabera egokitzeko gaitasuna du. Hilean behin (gutxienez) elkartzen den hiru pertsonako organoa da (bi koordinatzaile, euskara arduraduna eta euskara aholkulariek osatzen dute). Horren zereginen artean daude: <ul style="list-style-type: none">- Urteko kudeaketa planaren helburuak eta ekintzak garatzea- Ekintzen gauzatzean euskara arduradunari laguntzea- Urteko kudeaketa planaren jarraipena egitea- Kudeaketa planaren balorazioa- Hobetzeko ekintzak proposatzea- Euskara planaren erakundeko eta lankideen arteko komunikazioan laguntzea Euskara Batzordeari dagokionez, berriz, hau urtean gutxienez hiru aldiz elkartzen da, baina euskara planaren arabera gehiagotan ere elkartu daiteke. Osaerari dagokionez, zuzendaritzako kideak, sailtako arduradunak, hizkuntza aholkulariak... daude bertan. Bere egitekoen artean honakoak daude: <ul style="list-style-type: none">- Prozesuari babesa eman eta bidean lagundu- Plana erakunde osora zabaltzeko bitartekoa izatea- Erakundetik kanpoko komunikazioan lagundu- Urteko helburuak garatzen lagundu eta horien jarraipena egin- Urteko ekintzen emaitzak aztertu eta ekarpenak egin- Balorazioetan parte hartu eta ekintza zuzentzaileak proposatu- Azken emaitza aztertu, ekarpenak egin eta oniritzia eman Hirugarrenik, euskara arduraduna, fundazioko koordinatzailea

eta klubeko koordinatzailea daude. Bi koordinatzaileak erakundeetako lankide edo arduradunak dira eta euskara arduraduna, berriz, Zuzendaritza Batzako kidea. Nagusiki honakoak dira beren egitekoak:

- Prozesuaren zein planaren ikuspegi osoa izan eta jarraipena egin
- Planaren inplementazioak egunerokotasunean eskatzen dituen lanak koordinatu
- Kudeaketa planeko ekintzak gauzatu
- Talde operatiboa eta Euskara Batzordeari beharrezko informazioa zabaldu eta ekintzak komunikatu
- Hizkuntza aholkulariarekin koordinatu

Nondik dator?

Antolaketa hau Athleticeko egituraren barruan modu naturalean sortu da. Hau da, gainerakoan erakundeetan dagoen antolaketa eta honek duen funtzionatzeko moduari erantzunez sortu da hiru ardatzeko egitura.

Onurak, lortutako emaitzak

Antolaketa honen onurak edo lortutako emaitzak dira funtzioak ongi banatuta dituen eta sarean antolatutako egitura bat egotea Euskara Planaren oinarrian. Honek Euskara Planari oinarri sendoa eta marko zabala dakarkio.

Gainera, garrantzitsua da Euskara Plana sostengatuko duten pertsonak eta antolaketak erakundearen ohiko egituraren txertatzea, horrek ere planaren bideragarritasuna bermatzen lagunduko baitu.

Erakunde bakoitzak (kluba eta fundazioa) bere plana izanda ere, marko bakarraren baitan lan egitea ahalbidetzen du egitura honek, antolaketak ahalbidetzen dituen sinergiak aprobetxatzen baitira planaren egikaritzan.

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...


(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

Lehendabiziko irudiak planaren hiru ardatzak zeintzuk diren argi izaten lagundu gaitzake:

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Bigarrenak aldiz, planaren dimentsioak zeintzuk diren eta horien funtzionamendurako subjektu/organo bakoitzan kokatzen den ulertzeko balio digu:

